

**BALORE-MERKATUAN JARDUTEKO BARNEKO JOKABIDEEN  
ERREGELAMENDUA**

**CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITO**

**2018ko  
maiatza**

## **LEHENA. Aplikazio-eremu subjektiboa eta objektiboa.**

1. Hauei aplikatu behar zaie Barneko Jokabideen Erregelamendua (“Erregelamendua”, aurrerantzean): Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Kontseiluko kideei, haren Taldeko sozietateetako administrazio-kontseiluetako kideei (aurrerantzean, “LABORAL Kutxa” deituko diogu Taldeari; hor sartzen dira Caja Laboral Gestión SGIIC SA eta Caja Laboral Pensiones, Gestora de Fondos de Pensiones SA) eta LABORAL Kutxak balore-merkatuan dauzkan jarduerekin edo zerbitzuekin zuzeneko lotura duten edo gehienbat horiekin diharduten LABORAL Kutxako zuzendari eta langileei edo LABORAL Kutxari buruzko informazio esanguratsuetara ohiko edo maizko sarbidea dutenei. Halaber, LABORAL Kutxari berari ere aplikatu behar zaio Erregelamendu hau, balore-merkatuarekin lotura duten haren jardueretarako antolakuntza- eta funtzionamendu-neurriak ezartzen ditu eta. LABORAL Kutxa pentsio-funtsen gordailuzaina baldin bada, edo gestorea beren taldekoa duten inbertsio kolektiboko erakundeena, zazpigarren ataleko jokabide-arauen arabera jardun behar du.

Hurrengo atalean, zortzigarrenean, aipatzen den organoak agintzen duen zuzendariei, enplegatuei edo aldi baterako langileei ere aplikatu behar zaie, beti edo organo horrek kasu bakoitzerako ezartzen duen epean.

2. Kreditu-erakundearen antolaketa, ikuskapen eta kaudimenerako ekainaren 26ko 10/2014 Legea garatzen duen otsailaren 13ko 84/2015 Errege Dekretuaren 21. artikulua aipatzen dituen agenteetatik baldin badauka LABORAL Kutxak, haiei edo, hala badagokio, haien administratzaileei eta enplegatuei ere aplikatu behar zaie araudi hau, iraunkorki edo aldi baterako, betiere 1. atalean aurreikusten diren baldintzak betetzen badira.
3. “Subjektu obligaziodunak” deituko diegu, hurrengo ataletan, araudi hau aplikatu behar zaien kontseilari, zuzendari, langile, behin-behineko langile eta agenteei.
4. LABORAL Kutxak etengabe eguneratuta edukiko du, eta balore-merkatuak ikuskatzen dituzten agintarien eskura, Erregelamendu hau aplikatu behar zaien subjektu obligaziodunen zerranda.
5. Erregelamendu honen aplikazio-eremu objektiboan sartzen dira Balore Merkatuaren Lege bateginaren testua onartzen duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. artikuluan aipatzen diren finantza-tresnak.

## **BIGARRENA. “Erregelamendua” eta indarrean den legedia ezagutzeko eta aplikatzeko betebeharra.**

Subjektu obligaziodunek ezagutu eta bete egin behar dituzte, letrari zein espirituari dagokienez, Erregelamendu hau ez ezik, beste lege eta arau hauek: beren berariazko jarduera-eremuari eragiten dion balore-merkatuari buruzko indarrean del legedia eta, bereziki, merkatu-abusua prebenitzea helburu duten xedapenak eta Balore Merkatuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren gainerako jokabide-arauak; merkatu-abusuaren alorrean Balore Merkatuaren Legea garatzen duen azaroaren 11ko 1333/2005 Errege Dekretua; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 596/2014 zenbakidun Araudia (EB); Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 2014/57/EB Direktiba eta aipatutako araudia eta direktiba garatzeko indarrean sartu diren Europako arauak; otsailaren 13ko 83/2015 Errege Dekretuak onartutako azaroaren 4ko 35/2003 Legea, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzkoa, eta haren araudia; otsailaren 15eko 217/2008 Errege Dekretua, inbertsio-zerbitzuetako enpresen eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten gainerako erakundearen araubide juridikoari buruzkoa, eta araudi hau garatzeko Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun ministroak edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onartzen dituzten gainerako xedapenak.

Ezagutu eta bete egin behar dituzte, halaber, Erregelamendu honi dagozkion betebeharrak aplikatzeko prozesu eta prozedura operatiboak.

## **HIRUGARRENA. Merkatu-abusua.**

1. Subjektu obligaziodunek ez dute egin edo sustatu behar legez kanpoko jokabiderik finantza-merkatuetan, hala nola informazio pribilegiatuaz baliatu eragiketak egiteko, legez kanpo komunikatu informazio hori eta merkatua manipulatzeko eragiketak egin.

### 2. Informazio pribilegiatuaren definizioa

2.1. EBko 596/2014 Erregelamenduaren (aurrerantzean, Erregelamendua) 7. artikulua araberan, informazio-mota hauetako edozein joko da informazio pribilegiatutzat:

- a) jakitera eman ez den informazio jakin bat, jaulkitzaile bati edo batzuei zuzenean edo zeharka dagokiena, edo finantza-tresna bat edo batzuk edo haien deribatuak, eta jakitera emanez gero nabarmen eragin lezakeena tresna horien prezioan edo haiekin lotura duten tresna deribatuenean.
- b) lehengaien gaineko tresna deribatuei dagokienez, jakitera eman ez den informazio zehatza —tresna deribatu horietako bati edo batzuei zuzenean edo zeharka dagokiena edo zuzenean haiekin lotura duen lehengaien gaineko eskurako kontratu bati—, zeinak, jakitera emanez gero, eragin nabarmena izan lezakeen tresna deribatu horien edo haiekin lotura duten lehengaien gaineko eskurako kontratuen prezioetan, betiere nahikoa segurki espero baldin bada informazio hori jakitera emango dela edo nahitaez eman behar litzatekeela, aplikatzekoa den araudiari jarraikiz, lehengaien edo eskurakoen dagozkien merkatuetako kontratuetan edo jardun eta ohituretan.
- c) eskubide horiek oinarri dituzten jaulkipen-eskubideei edo enkantean ateratako produktuei dagokienez, jakitera eman ez den informazio zehatza, finantza-tresna horietako bati edo batzuei dagokiena eta, jakitera emanez gero, eragin nabarmena izan lezakeena tresna horien edo haiekin lotura duten finantza-tresna deribatuen prezioetan.
- d) finantza-tresnei buruzko aginduak betearazi behar dituzten pertsoneri dagokienez, bezero batek finantza-tresnei dagozkien agindu erabakizunen gainean bezero batek emandako informazio zehatza, jaulkitzaile bati edo batzuei edo finantza-tresna bati edo batzuei dagokiena eta, jakitera emanez gero, eragin nabarmena izan lezakeena finantza-tresna horien prezioetan, lehengaien gaineko eskurako kontratuen prezioetan edo haiekin lotura duten tresna deribatuen prezioetan.

2.2 Halaber, informazioa zehatza dela joko da baldin eta egoera jakin batzuei badagokie —edo nahikoa segurki sor daitezkeen egoera batzuei—, edo gertatu den —edo nahikoa segurki gerta daitekeela espero den— jazoera bati badagokio, betiere informazio hori nahikoa espezifikoa baldin bada eta balio baldin badu ondorioren bat ateratzeko egoera edo gertaera horrek finantza-tresnen edo haiekin lotura duten tresna deribatuen prezioetan izan dezakeen eraginaz, haiekin lotura duten lehengaien gaineko eskurako kontratuez edo jaulkitze-eskubideetan oinarritutako enkantera ateratako produktuez. Prozesua luzea baldin bada eta egoera jakin batzuk edo egitate jakin bat eragin dezan nahi bada, informazio zehatzat jo daitezke bai etorkizuneko egoera edo egitate hori, bai etorkizuneko egoera edo egitate hori sor edo eragin edo ekar dezaketen prozesu horren bitarteko etapak.

Kasu honetan joko da informazio batek nabarmen eragin diezaikeela finantza-tresnen prezioei, finantza-tresna deribatuei, haiekin lotura duten lehengaei buruzko eskurako kontratuei edo jaulkitze-eskubidea

oinarri duten enkantera ateratako produktuei: inbertitzaile zuhur batek bere inbertsio-erabakiak hartzeko oinarrizko elementutzat erabil baldin badezake.

### 3. Merkatu-manipulazioa.

#### 3.1. Erregelamenduaren 12. artikulua arabera, merkatu-manipulaziotzat joko dira jarduerak hauek:

- a) ondorio hauek dituen eragiketa bat egitea, negoziazio-agindu bat ematea edo beste zeinahi jokabide bultzatzea:
  - i. seinale faltsuak edo engainagarriak hedatzea edo hedatzeko aukera izatea finantza-tresna baten edo harekin lotura duen lehengaien gaineko eskurako kontratu bati buruz, edo
  - ii. maila anormal edo artifizial batean finkatzea finantza-tresna baten edo batzuen edo harekin lotura duen lehengaien gaineko eskurako kontratu baten prezioa,  
  
kasu honetan izan ezik: eragiketa egin duen edo negoziazio-agindua eman edo beste zeinahi jokabide bultzatu duen pertsonak frogatzen badu eragiketa, agindu edo jokabide hori arrazoi legitimoengatik egin dela, aplikatzekoa den araudiaren arabera merkatu-jardunbide onetsi bati jarraikiz.
- b) finantza-tresna baten edo batzuen, haiekin lotura duen lehengaiei buruzko eskurako kontratu baten edo jaulkipen-eskubideetan oinarrituta enkantera ateratako produktu baten prezioari eragiten dion eragiketa bat egitea, agindu bat ematea edo beste zeinahi jarduerak edo jokabide bultzatzea;
- c) informazioa zabaltzea, hedabideen (Internet ere barne dela) edo beste zeinahi bideren bitartez, seinale faltsuak edo engainagarriak hedatuz finantza-tresna baten, harekin lotura duen lehengaiei buruzko eskurako kontratu baten edo jaulkipen-eskubideetan oinarrituta enkantera ateratako produktu baten eskaintzari, eskariari edo prezioari buruz, edo jokabide hori dela-eta finantza-tresna baten edo batzuen, haiekin lotura duen lehengaiei buruzko eskurako kontratu baten edo jaulkipen-eskubideetan oinarrituta enkantera ateratako produktu baten prezioa maila anormal edo artifizial batean finkatuz, barne dela zurrumurruak zabaltzea, baldin eta haiek hedatzen dituen informazioa faltsua edo engainagarria zela bazekien edo jakin behar zukeen;
- d) informazio faltsua edo engainagarria zabaltzea edo datu faltsuak ematea erreferentzia-indize bati buruz, baldin eta datu horiek zabaldu edo eman dituenak bazekien edo jakin behar zukeen faltsuak edo engainagarriak zirela, edo erreferentzia-indize baten kalkulua manipulazioa dakarren beste zeinahi jokabide bultzatzea.

#### 3.2. Aurreko atalean deskribatutakoez gain, merkatu-manipulaziotzat joko dira beste jokabide hauek ere:

- a) pertsona batek —edo batzuek, elkarrekin bat eginda— esku hartzea finantza-tresna baten, haiekin lotura duen lehengaiei buruzko eskurako kontratu baten edo jaulkipen-eskubideetan oinarrituta enkantera ateratako produktu baten gaineko nagusitasuna ziurtatzeko, baldin eta zuzenean edo zeharka eragiten badio edo eragin badiezaioke erosketa- edo salmenta-prezioaren ezarpenari edo bidezkoak ez diren beste negoziazio-baldintza batzuk sortzen baditu edo sor baditzake;
- b) finantza-tresnak erostea edo saltzea, merkatua irekitzen edo ixten den unean, baldin eta erakutsitako kotizazioen arabera —irekiera- eta itxiera-kotizazioak ere barne direla— jarduten duten inbertitzaileak nahastu edo engaina baditzake;

- c) zenbait agindu ematea negoziazio-zentro batean, barne direla aginduak baliogabetzea eta aldatzea ere, erabilgarri dauden negoziazio-metodoetatik edozein baliatuz, baliabide elektronikoak barne, hala nola negoziazio algoritmikoko estrategiak eta maiztasun handikoak, a) eta b) letradun ataletan aipatzen diren ondorioetakoren bat eragiten dutenak:
- i. negoziazio-zentroan erabiltzen den negoziazio-mekanismoaren funtzionamendua eragoztekoa edo atzeratzea, edo areagotzea hori gertatzeko probabilitateak;
  - ii. zailteza beste pertsona batzuei benetako aginduak identifikatzea negoziazio-zentroko negoziazio-mekanismoan, edo zailtzeko probabilitateak areagotzea, batez ere agindu-txartela gailkargatzen edo desegonkortzen duten aginduak emanez, edo
  - iii. finantza-tresna baten eskaintza eta eskariari edo prezioari buruzko seinale faltsu edo engainagarri bat sortzea edo sortu ahal izatea, batez ere joera bat hasteko edo areagotzeko aginduak emanez;
- d) aprobetxatzea hedabide tradizional zein elektronikoetarako sarbidea —aldizkakoa edo erregularra, zuzenekoa edo gainjarritako hirugarren batzuen bidezkoa—, iritzia emateko finantza-tresna bati, harekin lotura duen lehengaiei buruzko eskurako kontratu bati edo jaulkipen-eskubideetan oinarrituta enkantera ateratako produktu bati buruz (edo, zeharka, haien jaulkitzaileari buruz), tresna, kontratu edo jaulkipen-eskubideetan oinarrituta enkantera ateratako produktu horrekiko posizioak hartu ondoren eta, ondoren, emandako iritziek tresna, kontratu edo jaulkipen-eskubideetan oinarrituta enkantera ateratako produktu horren prezioarekiko izandako eragina aprobetxatzea,aldi berean jendeari garbiro eta egokiro adierazi gabe interes-gatazka horren berri;
- e) jaulkipen-eskubideak edo haiekin lotura duten tresna deribatuak erostea edo saltzea bigarren mailako merkatuan, 1031/2010 zenbakidun Erregelamenduan (EB) aurreikusitako enkantea egin baino lehen, eta horren ondorioz maila anormal edo artifizial batean kokatzea enkantera ateratako produktuen esleipen-prezioa edo enkanteetako eskaintzaileak nahastea edo engainatzea.

3.3. Nolanahi dela ere, aintzat hartu behar dira adierazle hauek (zerrenda ez da osoa), zeinak ezin baitira merkatu-manipulaziotzat jo, berez, eragiketak edo negoziatzeko aginduak merkatuko parte-hartzaileek eta agintari eskudunek aztertzean:

- a) zenbateraino diren emandako negoziazio-aginduak edo egindako eragiketak dagokion finantza-tresnaren, harekin lotura duen lehengaiei buruzko eskurako kontratu baten edo jaulkipen-eskubideetan oinarrituta enkantera ateratako produktuaren eguneroko bolumenaren proportzio esanguratsu bat, batez ere jarduera horiek prezio-aldaketa nabarmenak eragiten badituzte;
- b) zenbateraino eragiten dituzten aldaketa esanguratsuak finantza-tresna baten, harekin lotura duen lehengaiei buruzko eskurako kontratu baten edo jaulkipen-eskubideetan oinarrituta enkantera ateratako produktu baten prezioan finantza-tresna horrekiko, harekin lotura duen lehengaiei buruzko eskurako kontratu batekiko edo jaulkipen-eskubideetan oinarrituta enkantera ateratako produktu batekiko erosketa- edo salmenta-posizio garrantzitsua duten pertsona batzuek emandako negoziazio-aginduek edo egindako eragiketek;
- c) egindako eragiketek inolako aldaketarik eragin ez izana finantza-tresna baten, harekin lotura duen lehengaiei buruzko eskurako kontratu baten edo jaulkipen-eskubideetan oinarrituta enkantera ateratako produktu baten azken titulartasunean;
- d) zenbateraino emandako negoziazio-aginduek edo egindako eragiketek edo ezeztatutako aginduek barne hartzen dituzten epe laburreko posizio-ezeztapenak eta dagokion finantza-tresnaren, harekin lotura duen lehengaiei buruzko eskurako kontratu baten edo jaulkipen-eskubideetan oinarrituta enkantera ateratako produktuaren eguneroko bolumenaren proportzio esanguratsu bat diren eta finantza-tresna baten, harekin lotura duen lehengaiei buruzko eskurako kontratu baten edo jaulkipen-

eskubideetan oinarrituta enkantera ateratako produktu baten prezioan izandako aldaketa esanguratsuekin lotura izan dezaketen;

- f) zenbateraino emandako negoziazio-aginduak edo egindako eragiketak negoziazio-saioko denbora-epe labur batean kontzentratzen diren eta gerora aldarantzikatzen den prezio-aldaketa bat eragiten duten;
- e) zenbateraino emandako aginduek aldatzen dituzten finantza-tresna baten, harekin lotura duen lehengaiei buruzko eskurako kontratu baten edo jaulkipen-eskubideetan oinarrituta enkantera ateratako produktu baten eskaintza- edo eskari-preziorik onenak edo, oro har, merkatuko partaideek eskuragarri duten agindu-txartelaren konfigurazioa, eta gauzatu aurretik erretiratzen diren; eta
- g) zenbateraino ematen diren negoziatzeko aginduak edo egiten diren eragiketak erreferentzia-prezioak, likidazio-prezioak eta balorazioak kalkulatzeko berariazko unean edo haren inguruan, eta aldaketak eragiten dituzten prezio eta balorazio horiei eragiten dieten prezioetan.

3.4. Balore Merkatuaren Legearen 231.1.b artikuluan aipatzen diren alegiazko jardueri dagokienez, adierazle hauek gutxienez hartu behar dira aintzat (zerrenda ez da osoa). Adierazle horiek ezin dira berez jo merkatu-manipulaziotzat baldin eta eragiketak edo negoziazio-aginduak merkatuko parte-hartzaileek eta agintari eskudunek aztertu badituzte:

- a) edonork emandako negoziazio-aginduen edo egindako eragiketen aurretik edo ondoren informazio faltsurik edo engainagarrikerik zabaldu duten pertsona horiek edo haiekin lotura duten besteren batzuek, eta
- b) edonork negoziazio-aginduak eman edo eragiketak egin aurretik edo ondoren, pertsona horiek edo haiekin lotura duten besteren batzuek inbertsio-gomendio okerrak, partzialak edo interes garrantzitsu baten arabera eman dituzten.

#### 4. Informazio pribilegiatua duten subjektu obligaziodunek debekatuak dituzten eragiketak

4.1. Informazio pribilegiatua duten subjektu obligaziodunek ezin dute egin edo sustatu jokabide hauetatik batere, ez euren ez beste inoren kontura, ez zuzenean ez zeharka:

- a) Informazio honetan aipatzen diren tresna-finantzak erosi, eskualdatu edo laga, ez euren ez beste inoren kontura, ez zuzenean ez zeharka.

Informazio pribilegiatutzat jotzen da, halaber, informazio-mota hori erabiltzea informazioan aipatzen den finantza-tresnari buruzko agindu bat baliogabetzeko edo aldatzeko, baldin eta interesdunak informazio pribilegiatuaren berri izan aurretik eman bada agindua.

EBko 1031/2010 zenbakidun Erregelamenduaren arabera egindako jaulkipen-eskubideen enkantei edo eskubide horiek oinarri dituzten beste produktu batzueni dagokienez, informazio pribilegiatuaren erabileran sartzen dira pertsona batek egindako eskaintza bat aurkeztea, aldatzea edo erretiratzea, bai bere kontura badihardu pertsona horrek, bai hirugarren batzuen kontura.



- b) Gomendatzea pertsona batek eragiketak egitea informazio pribilegiatua erabiliz, edo inor bultzatzea informazio pribilegiatua erabiliz eragiketak egitera. Debeku horretan sartzen da informazio hori oinarri harturik gomendatzea beste pertsona bati hau egitea:
- i. informazioan aipatzen diren finantza-tresnak erostea, eskualdatzea edo lagatzea, edo pertsona hori bultzatzea erosketa, eskualdatzea edo lagapena egitera, edo
  - ii. informazioan aipatzen den finantza-tresnari buruzko agindu bat baliogabetzea edo aldatzea, edo pertsona hori bultzatzea baliogabetze edo aldaketa hori egitera.

Debekatuta dago, halaber, aurreko ataletan aipatutako gomendioen edo iradokizunen jarraipena egitea baldin eta gomendioaren edo iradokizunaren jarraipena egiten duenak badaki edo jakin behar baluke informazio pribilegiatua dutela oinarri.

4.2. Merkatu Abusuari buruzko Gidaliburuan daude jasota informazio pribilegiatuaz baliaturik egin daitezkeen merkatu-abusuzko eragiketak (3. atala, "Susmagarriak izan daitezkeen eragiketen eta adierazleen katalogoa").

4.3. Norbaitek informazio pribilegiatua izateak ez du automatikoki esan nahi hura erabili duenik eta, horrenbestez, debekatutako eragiketarik egin duenik (erosketak, eskualdatzeak edo lagapenak), baldin eta:

- a) Merkatu-sortzaile bat edo kontrako alderdi gisara jarduteko baimena duen pertsona bada, informazio horri atxikitako finantza-tresnari dagokionez, eta informazioan aipatzen diren tresnen erosketa, eskualdatzea edo lagapena legitimoki egiten bada, bere funtzioaren jardun normalean ari dela, edo baimenduta badago hirugarren batzuen kontura aginduak betearazteko eta bere lanaren, lanbidearen edo funtzioen jardun normalean ari dela egiten badu.
- b) Finantza-tresnak erosteko, eskualdatzeko edo lagatzeko eragiketaren bat egiten badu eta eragiketa hori fede onez egiten bada, obligazio mugaeguneraturen bat betetzeko, eta ez informazio pribilegiatua erabiliz eragiketak egiteko debekua saihesteko, eta obligazio hori pertsona horrek informazio pribilegiatuaren berri izan aurretik emandako agindu baten edo hartutako erabaki baten ondorio bada, edo eragiketa horren helburua informazio horren berri izan aurreko lege- edo arau-xedapen bat betetzea bada.

Ez da automatikoki joko informazio pribilegiatua erabili dela eta, beraz, eragiketa debekatuak egin direla beste kasu honetan ere: subjektu obligaziodunak enpresa bat erosteko edo harekin fusionatzeko eskaintza publiko batean jaso badu informazio pribilegiatu hori eta erosteko edo fusionatzeko soilik erabiltzen badu informazioa, betiere enpresa horretako akziodunek eragiketa onestean jada argitaratua bazegoen informazio pribilegiatu guztia edo ordurako informazio pribilegiatua izateari utzi bazion.

## 5. Merkatu-prospekzioa eta informazio pribilegiatua

Erakundeak merkatu-prospekzio bat egitea erabakitzen badu, horretarako behar dituen barne-prozedurak ezarri behar ditu, eta kontuan izan:

- 1. Merkatu-prospekzioari ekin aurretik, aztertu behar du hori egiteak berekin dakarren informazio pribilegiatua jakinaraztea, eta idatziz erregistratu behar ditu haren amaiera eta horren zergatiak;

2. Merkatu-prospekzioa dela-eta informazio pribilegiatua jakinarazi aurretik, baldintza hauek bete behar dira:
  - a) Merkatu-prospekzioaren hartzailearen baimena eskuratu behar da informazio pribilegiatu hori jasotzeko;
  - b) Hartzaileari jakinarazi behar zaio debekatuta daukala informazio hori erabiltzea edo erabiltzen saiatzea harekin lotura duten baloreekin inolako eragiketa egiteko;
  - c) Hartzaileari jakinarazi behar zaio informazio pribilegiatua jasotzean haren konfidentzialtasuna gordetzeko betekizuna bereganatzen duela.
3. Merkatu-prospekzio batean pertsona bati eman zaion informazioak informazio pribilegiatua izateari uzten dionean, ahalik eta lasterrena eman behar zaio horren berri hartzaileari.

Erakundeak erregistratu egingo ditu merkatu-prospekzioa dela-eta ematen diren informazioak; prospekzioa, berriz, une horretan aplikatzekoa den araudiari egokitu behar zaio.

Erregistratzen diren datuak bost urtez gorde behar dira, gutxienik, eta CNMVri jakinarazi, erakunde horrek hala eskatuz gero.

## 6. Eragiketa susmagarrien berri ematea

6.1. Balore Merkatuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 232. artikulua arabera, kreditu-erakundeek eta finantza-tresnekin eragiketak egiten dituzten inbertsio-zerbitzuetako enpresek ahalik eta lasterrena eman behar diote CNMVri honen berri: informazio pribilegiatua erabiltzen dutela edo prezioen eraketa librea faltsutzen duela susmarazteko nahikoa zantzu duen eragiketa ororena.

6.2. Horrenbestez, subjektu obligaziodunek Araudia Betearazteko Departamentuari jakinarazi behar diote badagoela, euren ustez, halako zantzurik, LABORAL Kutxak horretarako daukan prozedurari jarraikiz. Araudia Betearazteko Departamentuari berehala emango zaio merkatu-abusuaren gaineko susmoaren berri, Departamentuaren zuzendaritzari mezu elektronikoa ba bidaliz, aipatutako gidaliburuan datorren formularioa —beteta— erantsia duela.

Merkatu-abusuzko egoerak direla-eta subjektu obligaziodunek duten zalantza oro berehala azaldu behar zaio Araudia Betearazteko Departamentuari.

6.3. CNMVk zehaztutako baliabide elektronikoak erabiliz eta horretarako prestatutako STOR txantilo baten bidez bidali behar dio Araudia Betearazteko Departamentuak CNMVri eragiketa susmagarriaren gaineko jakinarazpena, Merkatu Abusuari buruzko Gidaliburuko prozeduraren arabera.

6.4. Konfidentzialtasuna gorde behar dute, une oro, eragiketa susmagarria detektatu duen agenteak eta Araudia Betearazteko Departamentuak, kasu honetan izan ezik, indarrean diren lege-xedapenen arabera betiere: kapital-zuriketarik ere egon dela susmatzen bada.

6.5. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eragiketa susmagarrien Berri emateak berekin dakar jakinarazpen hori isilpean gordetzeko obligazioa, indarrean diren lege-xedapenek besterik dioten

kasuetan izan ezik, eta Balore Merkatuaren Legearen 248. artikuluko laugarren atalak jasotzen duen sekretu profesionalaren babespean geratuko da eragiketa susmagarriari buruzko jakinarazpena bidali duen erakundearen nortasuna. Fede onez jakinarazpena bidaltzeak ez du ekarri behar berekin inolako erantzukizunik, eta ez ditu inondik ere urratzen kontratuen edo lege-, arau- edo administrazio-xedapenen informazioa argitaratzeko debekuak.

## **LAUGARRENA. Besteren konturako jarduerak eta gatazka-interesa.**

### 1. Gatazka-interesaren definizioa eta gatazka-interesak gestionatzeko politika.

1.1. Balore Merkatuaren Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 195. artikulua agintzen duenari jarraikiz identifikatzeko gatazka-interesak, aintzat hartu behar da, gutxieneko irizpide gisara, LABORAL Kutxa bera edo subjektu obligaziodunen bat edo kontrol-harreman baten bidez LKrekin zuzeneko edo zeharkako lotura duen pertsonaren bat egoera hauetakoren batean dagoen:

- a. Erakunde edo pertsona horrek finantza-etekin bat lor dezake, edo finantza-galera bat saihestu, bezeroaren kontura, edo
- b. bezeroaren interesaz bestelako interesa dauka bezeroaren kontura emandako zerbitzuaren edo egindako eragiketaren emaitzarekiko, edo
- c. finantza-pizgarriak edo beste edozein eratakoak ditu hirugarren bezero batzuen interesen alde jarduteko, eta ez dagokion bezeroaren alde, edo
- d. bezeroarena bezalakoa du jarduera profesionala, edo
- e. pizgarri bat jaso du, edo jasotzekoa da, bezeroari emandako zerbitzua dela-eta, dirutan, ondasunetan edo zerbitzutan (normalean zerbitzu horren truke jaso ohi duen komisioaz edo ordainsariaz bestelakoa da pizgarria).

Nolanahi dela ere, Balore Merkatuaren Legearen 195. artikuluen arabera, ez da nahikotzat joko kutzak irabazi bat lortzeko aukera izatea aldi berean bezeroen batek kalteren bat izateko arriskurik ez badago, edo bezero batek irabazi bat lortzeko edo galera bat saihesteko aukera izatea, aldi berean bezero bat galtzeko arriskurik ez badago.

1.2 Balore Merkatuaren Legearen 195. artikuluen arabera, interes-gatazkak gestionatzeko politika eraginkor bat onetsi, aplikatu eta mantendu behar du LABORAL Kutxak, erakundearen tamainari eta antolakuntzari egokitua, bai eta haren jardueraren izaera, eskala eta konplexutasunari ere. Halaber, idatziz jaso behar da politika hori, zeinak aintzat hartu behar baitu interes-gatazkaren bat eragin dezakeen beste edozein egoera, taldearen egiturak edo jarduerak sortua eta LABORAL Kutxak ezagutzen duena edo ezagutu behar lukeena.

1.3. Hona gestio-politikaren eginkizunak:

- a. Identifikatzea, LABORAL Kutxak eskaintzen dituen edo haren kontura egiten diren inbertsio-zerbitzuak eta zerbitzu osagarriak direla-eta, bezero baten edo gehiagoren interesei kalte handia eragin diezaikeen interes-gatazkaren bat sortzen duten edo sor dezaketen egoerak.

- b. Zehaztea zer prozedura erabili eta zer neurri hartu behar diren gatazka horiek gestionatzeko, eta bermatzea aurreko idatz-zatian adierazitakoaren arabera interes-gatazkaren bat eragin dezaketen jardueretan esku hartzen duten pertsona eskudunek LABORAL Kutxaren tamainari eta jarduerari eta bezeroen interesak kaltetzeko arriskuaren mailari egokitzen zaien independentzia-mailarekin dihardutela. Independentzia-maila hori bermatzeko egokiak eta beharrezkoak diren prozedurak eta neurriak baliatu behar dira, jarraian aipatuko ditugunetatik hautatuta:
  - i. Interes-gatazka bat eragiteko arriskua dakarten jardueretan diharduten pertsona eskudunen arteko informazio-trukea eragozteko edo kontrolatzeko prozedura eraginkorrak, baldin eta truke hori bezero baten edo batzuen kalterako izan badaiteke.
  - ii. Bereiz aztertzea gatazka eragin dezaketen bestelako interesak dituzten bezeroen kontura jarduerak egitea edo zerbitzuak ematea eginkizun nagusizat duten pertsona eskudunak, edo elkarrekiko gatazka eragin dezaketen bestelako interesen ordezkari beste edozein erataria diren pertsona eskudunak.
  - iii. Kentzea nagusiki jarduera batean aritzen diren pertsona eskudunen ordainsariaren eta nagusiki beste jarduera batean aritzen diren beste pertsona eskudun batzuek sortutako diru-sarreraren edo jasotako ordainsariaren arteko zuzeneko lotura oro, baldin eta interes-gatazkarik sor badaiteke jarduera horiek direla-eta.
  - iv. Neurriak hartzea inork eragin desegokirik izan ez dezan subjektu obligaziodun batek inbertsio-zerbitzuak edo zerbitzu osagarriak eskaintzeko moduan.
  - v. Neurriak hartzea subjektu obligaziodun batek ez dezan aldi berean edo aldi kontsekutiboetan parte hartu inbertsio-zerbitzu edo zerbitzu osagarri batean baino gehiagotan, baldin eta partaidetza hori kaltegarria bada interes-gatazkek egokiro gestionatzeko.

1.4. Aipatutako neurriek eta prozeduren ez badute bermatzen behar adinako independentzia-maila, LABORAL Kutxak egoki deritzen bestelako prozedura eta neurri osagarri batzuk —edo osagarriak— aplikatu behar ditu helburu hori lortzeko.

1.5. Interes-gatazka konpontzeko hartutako antolakuntza- edo administrazio-neurriek ez badute bermatu bezeroaren interesetarako arriskuen arrazoizko prebentzioa-maila, LABORAL Kutxak gatazkaren izaeraren eta jatorriaren berri eman behar dio bezeroari haren kontura jardun aurretik. Otsailaren 15eko 217/2008 Errege Dekretuaren 45. artikulua arabera, euskarri iraunkor baten bidez jakinarazi behar zaio bezeroari interes-gatazkaren berri, eta behar adina datu eman behar zaio, bezeroaren izaera kontuan hartuta, interes-gatazkek eragiten dion inbertsio-zerbitzuari edo zerbitzu osagarriari buruzko erabaki bat jakinaren gainean har dezan bezeroak.

## 2. Interes-gatazka kaltegarriak eragiten dituzten zerbitzuen erregistroa eta interes-gatazkei buruzko informazioa.

2.1 LABORAL Kutxak honi buruzko erregistro bat eduki behar du, eta hainbatean behin eguneratu: erakundeak egiten dituen edo haren kontura egiten diren inbertsio-zerbitzuak eta zerbitzu osagarriak, interes-gatazkarik eragin dutenak edo, zerbitzuak martxan baldin badaude, eragin dezaketenak.

2.2 Subjektu obligaziodunek adierazpen batean jaso behar dituzte LABORAL Kutxaren bezeroekin dituzten lotura garrantzitsuak (ekonomikoak, familiarak eta bestelakoak) balore-merkatuari edo merkatu arautuetan kotizatzen duten sozietateen alorreko zerbitzuak direla-eta. LABORAL Kutxari eman behar diote adierazpen hori, eta eguneratuta eduki.

Kasu guztietan, lotura ekonomikotzat joko da honako hau: balore-merkatuaren alorreko zerbitzuak direla-eta bezero direnen sozietateetan kapitalaren % 5etik gorako partaidetzaren zuzeneko edo zeharkako titular izatea (kotizatutako sozietateetan, % 1eko partaidetza), baldin eta subjektuak badaki LABORAL Kutxaren bezero dela eta, izaera hori dela medio, zerbitzu garrantzitsuak egiten zaizkiola.

Kasu guztietan, familia-loturatzat joko da balore-merkatuaren alorreko zerbitzuak direla-eta bezero direnekiko bigarren mailarainoko ahaidetasuna —odolkidetasunaren edo kidetasunaren arabera (aurrekoak, ondorengoak, anai-arrebak eta anai-arreben ezkontideak)— eta zerbitzu horiengatik bezero diren sozietateetan edo kotizatutako sozietateetan administrazio- edo zuzendaritza-karguak dituzten pertsonetikoa (salbuespena, aurreko paragrafoa bera).

Beste lotura batzuk ere jaso behar dira adierazpenean, baldin eta kontseilari edo enplegatu baten inpartzialtasuna koloka jar bedezakete, kanpoko begirale inpartzial baten iritziz. Horri buruzko arrazoizko zalantzarik baldin badago, zortzigarren atalean aipatzen den organora jo behar dute argibide bila kontseilariak eta enplegatuek.

Erakundeak identifikatu eta inbentariatutako interes-gatazken erregistro bat dago, LABORAL Kutxaren interes-gatazkei buruzko politikan jasotako interes-gatazkena hain zuzen ere.

### 3. Gatazkak nola konpondu

Balore-merkatuaren alorrean LABORAL Kutxak egiten dituen jardueri eta eskaintzen dituen zerbitzuei dagozkien eginkizunetan dihardutela, honela jardun behar dute subjektu obligaziodunek:

- a. Lehentasuna eman behar diete bezeroen interes legitimoak, eta prestu, leial, neutral eta zuhur jardun, merkatuaren osotasunari zor zaion errespetua gogoan izanik betiere.
- b. Ahalik eta gehiena murriztu behar dituzte bezeroen eta LABORAL Kutxaren arteko interes-gatazkak, eta halakorik sortzen bada, egokiro gestionatu eta konpondu behar dituzte.
- c. Ez diote lehentasunik eman behar LABORAL Kutxaren baloreen salmentari bezeroenen aurretik, baldin eta bezeroek balore-mota bera baldintza berdinetan edo hobeetan saltzea agindu badute, eta ez diote balorerik egotzi behar LABORAL Kutxari baldintza berdinetan edo hobeetan eskatu dituen bezerorik baldin badago.
- d. Ez diote pribilegiarik eman behar inongo bezerori baldin eta interes-gatazkarik badago haietako batzuen artean, eta bereziki bete behar dute LABORAL Kutxaren aginduak banatzeko eta betearazteko sistema.
- e. Ez dute egin behar alferrikako transakziorik eta bezeroari onurarik ez dakarkionik.

## **BOSGARRENA. Informazio-hesiak.**

### 1. Eremu bereziak.

- 1.1. LABORAL Kutxak behar diren neurriak hartu behar ditu bere jarduera-eremuen artean informazio pribilegiatuaren fluxurik ez egoteko, bermatzeko eremu bakoitzak bere kabuz hartuko dituela balore-merkatuen alorreko erabakiak eta, bide batez, interes-gatazkak saihesteko.

Bereziki, hau egin behar du LABORAL Kutxak:

- a. Jarduera-eremu bereziak sortu erakundearen edo haiek partaide diren taldean, betiere aldi berean jarduten badira haietako batean baino gehiagotan. Berezi, zorro propioaren eta besteren zorroaren gestioa eta finantza-azterketa jarduerak egiten dituen departamentu bakoitza eremu berezi gisara antolatu behar da, Balore Merkatuaren Legearen 141. artikuluko e) idatz-zatiaren arabera.
  - b. Informazio-hesi egokiak jarri eremu berezi bakoitzaren eta erakundearen gainerako sailen artean, bai eta eremu berezien artean ere.
  - c. Inbertsioei buruzko erabakitze-sistema bat zehaztu, bermatzeko erabakiak autonomoki hartzen direla eremu berezi bakoitzean.
  - d. Zerrenda batean jaso zer balore eta finantza-tresnaren gainean duen informazio pribilegiatua erakundeak, eta eguneratuta eduki zerrenda; halaber, zerrenda batean jaso zeinek eta noiz izan duten eskuragarri informazio hori. Azken bost urteetako informazioa jaso behar da zerrenda horietan... Halaber, jakinarazi egin behar zaie zerrendan ageri direnei han daudela eta horrek zenbait debeku dakarziela.
- 1.2. Bestalde, LABORAL Kutxak kotizatutako baloreak edo finantza-tresnak jaulkitzen dituzten sozietateei buruzko txostenak edo gomendioak egiten, argitaratzen edo hedatzen baditu, leialki eta inpartzialki jardun behar du, eta leku nabarmena eman bere txosten, argitalpen edo gomendioetan lotura garrantzitsuei, barne direla lotura komertzialak, eta azterketaren xede den enpresarekin LABORAL Kutxak daukan edo eduki behar duen partaidetza egonkorrari; adierazi behar du, halaber, dokumentu hori ez dela baloreak saltzeko edo harpidetzeko eskaintza bat.
- 1.3. Beste betekizun hau ere badute jaulkitzaileek: zenbait neurri ezarri behar dizkiete beren administrazio-organoko kideei, zuzendariei eta balore-merkatuko jardueretan diharduten enplegatuei, erakundeak berak edo taldeko besteren batek jaulkitako baloreei edo finantza-tresnei buruzko informazio pribilegiaturik erabil ez dezaten.

Erregelamendu honen zortzigarren atalean aipatzen den organoak behar bezala eguneratuta eduki behar du sail berezi bakoitzean lan egiten duten enplegatuen zerrenda.

## 2. Informazioa ez zabaltzeko konpromisoa.

Sail berezi batean diharduen enplegatu bakoitzak, edozein mailatakoa dela ere, betekizun hau du: ez dio eman behar bere funtzioak direla-eta eskuratutako ez informazio pribilegiaturik, ez —oro har— konfidentzialik edo ezkutukorik bere areaz kanpoko inori.

Alabaina, legez hala dagokien kasuetan eman daitezke informazio horiek, bai eta beste hauetan ere:

- a. Dagozkien erabakitze-prozesuetan, zuzendariei eta goi-organoei. Informazioa bereziki garrantzitsua edo konfidentziala bada, Erregelamendu honetako zortzigarren atalak aipatzen duen organoari jakinarazi behar zaio informazio-ematearen berri.
- b. Erregelamendu honetako zortzigarren atalak aipatzen duen organoak baimena ematen duen gainerako kasuetan. Baimen horien erregistro indibiduala egin behar da, eta ematen direnean, bereziki izan behar dira kontuan interes-gatazka sortzeko arriskuak (barne direla LABORAL Kutxako bi sailen edo departamenturen artean sor daitezkeenak) eta, gatazkarik sortuz gero, arrazoizko segurtasun-tarte bat utzi behar da bezeroari kalterik eragin gabe konpontzeko arazoa, eta bi bezero baldin badira, informazioaren jatorri-sailekoarekin lotura duenari kalterik ez eragiteko.

### 3. Beste bereizte-arau batzuk.

Bereizte fisikoko eta logikoko neurri arrazoizkoak eta zentzuzkoak ezarriko ditu LABORAL Kutxak sail bereizien arteko informazio fluxua eragozteko. Arau hauek bete behar dituzte neurri horiek:

- a. **Kokapena:** Eremu fisiko desberdinetan egon behar dute sail bereizi bakoitzaren zerbitzuek, LABORAL Kutxak eta sailak berak horretarako tamaina egokirik baldin badute behintzat.
- b. **Informazioaren babesa:** Sail bereizietan lan egiten dutenek neurriak hartu behar dituzte erabiltzen dituzten fitxategiak, programak eta dokumentuak ez daitezen egon informazio hori eskuratu behar ez duen inoren eskura.
- c. **Eragiketa jakin batzuekiko lotura duten pertsonen zerrenda:** Beren ezaugarriak direla-eta informazio pribilegiatua duten proiektu edo eragiketetan esku hartzen duten sailek proiektura edo eragiketara sarbidea dutenen zerrenda bat egin behar dute, eta eguneratuta eduki, Erregelamendu honen zortzigarren atalak aipatzen duen organoari kopia bat bidalita. Azken bost urteei buruzko informazioa eduki behar du zerrendak. Halaber, jakinarazi egin behar zaie zerrendan ageri direnei han daudela eta horrek zenbait debeku dakarzkia.

### 4. Finantza Azterketako Sail Bereizari dagozkion arau bereziak

4.1. Sail bereizi horren jarduerak barne hartzen ditu inbertsioei buruzko txostenak, finantza-azterketak eta finantza-tresnei dagozkien eragiketei buruzko gomendio orokor batzuk. Halakotzat joko dira hartzaile duten bezeroaren egoera zehatza kontuan hartu gabe esplizituki edo inplizituki finantza-tresna bati edo batzuei buruzko edo finantza-tresnen jaulkitzaileen gaineko inbertsio-estrategia bat gomendatzen edo proposatzen duten informazioak, barne dela tresna horien egungo edo etorkizuneko balioaren edo prezioaren gaineko edozein irizpen, betiere informazioa banaketa-kanaletarako edo publikoarentzako baldin bada eta baldintza hauek betetzen badira:

- Inbertsio-txostena halakotzat jo behar da, edo finantza-azterketatzat edo antzekotzat, edo, bestela, gomendio-gai diren jaulkitzaile edo tresnei buruzko azalpen objektibo eta independentetzat.
- Inbertsio-zerbitzuetako enpresa batek egiten badio gomendioa bezero bati, ez da hartu behar inbertsio-alorreko aholkutzat, Balore Merkatuaren Legearen 140.g) artikuluari jarraikiz.

#### 4.2. 41. ataleko gomendioak objektiboki aurkezteko arauak.

- 1.1. 4.1 ataleko gomendio orok argi eta nabarmen adierazi behar du prestatu duenaren nortasuna, batez ere gomendioa egiten duenaren izena eta funtzioa, eta prestatu duen pertsona juridikoaren izena.
- 1.2. Finantza Azterketa Sail Bereizi horretako kide guztiak inpartzialtasun- eta leialtasun-printzipioen arabera jardun behar dute 4.1. atalean aipatzen diren txostenen edo gomendioen hartzaile direnekin.
- 1.3. Nabarmen ikusteko moduan azaldu behar ditu argitaratzen den txosten edo gomendio orok (4.1 atalean aipatzen direnak) LABORAL Kutxak edo haiek prestatu dituztenek aztertu diren enpresekin dituzten lotura esanguratsuak, batez ere haiekin dituzten harreman komertzialak, haietan duten edo izan behar duten partaidetza egonkorra eta haietako kontseilari, zuzendari edo enplegatutako diren LABORAL Kutxako Kontseilu Errektoreko kideak, zuzendariak edo enplegatutako,

edo alderantziz. Halaber, hau adierazi behar da argitaratzen diren txostenetan edo gomendioetan: ez direla baloreak saltzeko edo harpidetzeko eskaintza bat.

1.4. Subjektu obligaziodunek arrazoizko ahalegina egin behar dute hau ziurtatzeko:

- a. Egitateak ondo bereizten direla interpretaziotik, estimazioetatik, iritzietatik eta egitatezkoa ez den bestelako informaziotik.
- b. Iturri guztiak fidagarriak direla. Zalantzarik baldin badago iturriaren fidagarritasunaz, garbi adierazi behar da.
- c. Prezioen proiektzioak, iragarpenak eta helburuak garbi adierazten direla halakotzat, eta garbi azaltzen direla haiek prestatzeko edo erabiltzeko egindako hipotesi aipagarriak ere.
- d. Gomendioak funtsatuak direla. LABORAL Kutxak gai izan behar du gomendio horiei buruzko arrazoizko argibideak emateko CNMVren aurrean, hala badagokio.

1.5. Bestalde, subjektu obligaziodunek arrazoizko ahalegina egin behar dute hau ziurtatzeko, betiere balorazio-tresnaren eta aplikatutako azterketa-metodoaren nolakotasuna aintzat harturik:

- a. Iturri garrantzitsu guztiak aipatzen direla, jaulkitzailea barne (hala badagokio), eta azaltzen dela jaulkitzaile horri gomendioa egin zaiola eta argitaratu aurretik zuzendu egin dela.
- b. Egokiro laburtzen dela balore zein finantza-tresna bat edo haien jaulkitzailea ebaluatzeko edozein ebaluazio-oinarri edo -metodologia, edo balore zein finantza-tresna baten prezio-helburua ezartzekoa.
- c. Argiro azaltzen dela egindako gomendio ororen esanahia —adibidez, erosteko, saltzeko edo mantentzekoena—, non gomendioak aipatzen duen inbertsioaren denbora-epea ere sar baitaiteke, eta garbi azaltzen direla arriskuak, beharrezko hipotesien sentikortasunaren azterketa ere barne dela.
- d. Hala badagokio, aipatzen dela zenbatean behin eguneratu behar den gomendioa, bai eta aurrez iragarritako estaldura-politikan egiten den aldaketa garrantzitsu oro ere.
- e. Argiro eta nabarmen adierazten dela noiz egin den gomendioa lehenbiziko aldiz, bai eta aipatutako balore edo finantza-tresna ororen preziorako beharrezko data eta ordua ere.
- f. Gomendio bat ez bada hura egin aurreko 12 hilabeteko epean egindako balio, finantza-tresna edo jaulkitzaile berari dagokion beste bat bezalakoa, argiro eta nabarmen adierazi behar dira aldaketa hori eta aurreko gomendioaren data.

1.6. Aurreko zenbakiko a), b) eta c) idatz-zatiek diotena betetzea neurritz gaindikoa gertatzen bada hedatutako gomendioaren tamainarekiko, aski da gomendioan bertan aipatzea non aurki dezakeen publikoak, zuzen eta erraz, behar den informazioa; adibidez, zuzeneko esteka bat, Interneten, Kutxaren webguneko orri batean, betiere ez bada aldaketarik egon egindako ebaluazioaren metodologian edo oinarrian.

4.3. 4.1. ataleko gomendioei dagozkien interesak edo interes-gatazken berri emateko arauak.

1.1. Finantza Azterketaren Sail Bereizian dihardutenek debekatua dute:



- a) Eragiketa pertsonalak egitea edo beste inoren kontura negoziatzea —enpresa ere barne dela—, baldin eta ez badute merkatu-sortzaile gisara egiten, fede onez eta jarduera horren ohiko jardunean edo bezero batek eskatu gabeko agindu bat betetzean erakundeak alde aurretik proposamenik egin gabe, inbertsio-txostenean aipatzen diren finantza-tresnei edo harekin lotura duen edozein finantza-txosteni dagokionez, baldin eta txostena noiz argitaratuko den eta haren edukia berri badute eta datu horiek ez badira jendaurrean azaldu edo ez bazaizkie bezeroei eman eta ezin badira eskuragarria dagoen informaziotik ondorioztatuz, harik eta txostenaren hartzaileek gaiari ekiteko arrazoizko aukera duten arte.
- b) Aurreko idatz-zatiak estaltzen ez dituen egoeretan, ezingo dute eragiketa pertsonalik egin txosten horietan aipatzen diren finantza-tresnekin, edo hariekin lotura duten finantza-tresnekin, indarrean dauden gomendioek diotenaren aurka, ohiz kanpoko egoeretan izan ezik eta zortzigarren atalak aipatzen duen organoaren alde aurreko eta idatzizko baimenarekin.
- c) Ezin dute onartu pizgarriak txostenaren xedean interes nabarmena dutenengandik eta ezin diete hitzeman jaulkitzaileei aldeko txostenak egingo dizkietela.
- d) Inbertsioei buruzko txostenaren zirriborroak gomendio bat baldin badu, edo prezio-helburu bat, ez jaulkitzaileek —subjektu obligaziodunak— ez beste inork, analistek izan ezik, ezin dute begiratu zirriborroa txostena argitaratu aurretik han ageri diren adierazpen objektiboen zehaztasuna egiaztatzeko edo beste edozertarako, honetarako izan ezik: egiaztatzeko enpresak betetzen dituela lege-eskakizunak.

Atal honetan xedatutakoari dagokionez, hau jotzen da finantza-tresna lotuzat: inbertsioei buruzko txosten baten xede den finantza-tresna baten prezioaren aldaketek zuzenean eragiten dioten baten aurrekoa. Haren finantza-tresna deribatuak barne direla joko da

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa ez da aplikatuko inbertsio-zerbitzuak eskaintzen dituen erakundeak baldintza hauek betetzen dituen inbertsio-txosten bat argitaratzean:

- Txostena egiten duen pertsona ez izatea erakundea partaide duen taldeko kidea.
- Erakundeak ez egitea aldaketa esanguratsurik txosteneko gomendioetan;
- Erakundeak ez aurkeztea txostena berak egindakotzat;
- Erakundeak egiaztatzea txostena egiten duen pertsonak betetzen dituela inbertsio-txostenak egiteko otsailaren 15eko 217/2008 Errege Dekretuan aurreikusten diren baldintzak edo haien baliokideak, inbertsio-zerbitzuetako enpresen eta inbertsio-zerbitzuak eskaintzen dituzten gainerako erakundeen erregimen juridikoari buruzkoak, edo, bestela, baldintza horiek aurreikusten dituen politika bat ezarria izatea.

- 1.2. LABORAL Kutxak gomendio bat prestatzen duenean, gomendioaren objektibotasuna arriskuan jar dezaketen egoera guztiak aipatu behar ditu, batez ere gomendioaren xede diren finantza-tresna baten edo gehiagoren finantza-interes aipagarriak edo gomendioan aipatzen den jaulkitzailearekiko interes-gatazka adierazgarriak.

Aurreko paragrafoan aipatzen den betekizuna erakunde horrentzat lan-kontratu bidez edo beste nolabait lan egiten duen eta gomendioa egin behar duen pertsona fisiko edo juridiko orori zaio aplikagarri.

- 1.3. Eman behar den informazioak, berriz, xehetasun hauek —gutxienik— azaldu behar ditu:

- a. Gomendioa egin behar duten pertsonak eskura dituzten edo, arrazoiz pentsa daitekeenez, eskura izan ditzateketen erlazionatutako pertsona juridikoaren edo pertsona juridikoen interesak edo interes-gatazkak.
- b. Gomendioa prestatzen jardun ez diren arren gomendioa bezeroei edo publikoari ezagutzera eman aurretik eskuratzeko aukera dutela edo izan dezaketela arrazoiz pentsa daitekeen pertsonak ezagutzen duten pertsona juridikoaren edo pertsona juridikoen interesak edo interes-gatazkak.

1.4. Horrez gain, argiro eta nabarmen azaldu behar du bere interesei eta interes-gatazkei buruzko informazio hau:

- a. LABORAL Kutxaren edo harekin lotura duen edozein pertsona juridikoren eta jaulkitzailearen artean dauden partaidetza adierazgarriak. Xede horietarako, gutxienez hauek joko dira partaidetza esanguratsutat:
  - i. LABORAL Kutxak edo harekin lotura duen edozein pertsona juridikok jaulkitzaileak jaulkitako kapital sozial osoaren ehuneko bosteko edo hortik gorako partaidetza edukitzea.
  - ii. Jaulkitzaileak LABORAL Kutxaren kapital sozial osoaren ehuneko bosteko edo hortik gorako partaidetza edukitzea.
- b. Beste finantza-interes esanguratsu batzuk edukitzea.
- c. Hala dagokionean, jaulkitzailearen finantza-tresnen merkatu-sortzaile bat edo likidezia-hornitzaile bat dela dioen adierazpen bat egitea, horretarako hartutako konpromiso bati jarraikiz.
- d. Hala dagokionean, aurreko 12 hilabeteetan jaulkitzailearen finantza-tresnen edozein eskaintza publikoren zuzendari edo zuzendarikide izan dela dioen adierazpen bat egitea.
- e. Hala dagokionean, inbertsionarako banku-zerbitzuak emateko jaulkitzailearekin adostutako beste edozein akordiotako partaide dela dioen adierazpen bat egitea, baldin eta horrek ez badu eragiten inolako informazio komertzial konfidentzial azaltzea eta akordioa indarrean egon bada aurreko 12 hilabeteetan edo epe horretan konpentsazioren baten ordainketa edo konpentsazioren bat jasotzeko agindua eragin badu.
- f. Hala dagokionean, adierazpen batean azaltzea gomendioaren prestaketari buruzko jaulkitzailearekiko hitzarmen bateko partaide dela.

1.5. Finantza Azterketako Sail Bereziaren arduradunak Erregelamendu honetako zortzigarren atalean aipatzen den organoari eman behar dio prestatzekoak diren txostenen berri, eta argitaratzen den txosten oro hari bidali. Organo horri dagokio azterketa-atalera informazio-fluxu desegokirik ez egotearen ardura eta txostenak edo gomendioak egokiro hedatzearena, eta horretarako egoki deritzen neurriak hartzea.

## 5. Besteren Konturako Sail Bereziari dagozkion arau bereziak.

Neurri egokiak eta arrazoizkoak hartu behar dira Besteren Konturako Sail Berezian bezeroen artean sor daitezkeen interes-gatazkak saihesteko edo ahalik eta gehiena gutxitzeko.

Aginduak edo eragiketak zenbait bezeroen artean banatu behar badira, aldeztu aurretik ezarritako irizpide objektiboen arabera egin behar da esleipena. Edozein arrazoi dela medio ezin baldin bada aurrez ezarritako irizpidea aplikatu, edo ez bada egokia, idatziz jaso behar da zer irizpide aplikatu den.

Ahal dela, ezaugarri komunak dituzten bezeroak edo bezero-taldeak elkartuz egin behar da gestioa, betiere jarduerak Erakundearen duten garrantziaren arabera.

Bi bezeroren edo gehiagoren artean interes-gatazkarik sortuz gero, inpartziala izan behar du LABORAL Kutxaren jokabideak, eta ez du inoren alde jardun behar.

## **SEIGARRENA. Eragiketa pertsonalak**

### 1. Eragiketa pertsonalaren definizioa

Hau da eragiketa pertsonala: subjektu obligaziodun batek finantza-tresna batekin egiten duen edozein transakzio, edo subjektuaren kontura egiten dena, baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

- a. Subjektu obligazioduna erakundearen dagozkion jardueren alorretik kanpo aritzea.
- b. Pertsona hauetako edozeinen kontura egitea transakzioa:
  - i. Subjektu obligaziodunaren kontura;
  - ii. Subjektu obligaziodunak ahaidetasun-harremana edo lotura estua duen edozein pertsonaren kontura.

Xede horietarako, eta otsailaren 15eko 217/2008 Errege Dekretuaren 2. artikulua xedatzen duenaren arabera, jotzen da hauek dutela ahaidetasun-harremana: subjektu obligaziodunaren ezkontidea edo harekin antzeko afektibitate-loturaren bat duena, legedia nazionalaren arabera; subjektu obligaziodunak bere kargura dituen seme-alabak edo seme-alabaordeak eta dagokion eragiketa pertsonalaren data baino urtebete lehenagotik, gutxienik, harekin bizi diren gainerako ahaideak.

Xede berorietarako eta Errege Dekretu beraren 17.2 artikulua xedatzen duenaren arabera, lotura estutzat jotzen da bi pertsona fisiko edo juridiko edo gehiagoren artekoa, baldin eta:

- a. Enpresa baten boto-eskubideen edo kapitalaren % 20 edo gehiago badute, zuzenean edo zeharka edo kontrol-lotura baten bidez, edo
- b. Balore Merkatuaren Legearen 5. artikulua araberako kontrol-lotura bat badute.
- iii. Subjektu obligaziodunarekin duen harremana dela-eta eragiketaren emaitzan zuzeneko edo zeharkako interesa duen pertsona baten kontura. Ez da joko inolako interesik dagoenik transakzioa egiteagatik dagokion ordainsaria edo komisioa kobratze hutsagatik.

### 2. Jarduera debekatuak eta hartu beharreko neurriak.

Balore Merkatuaren Legeak dioenari jarraikiz, LABORAL Kutxak neurri egokiak hartu behar ditu hurrengo paragrafoan aipatuko diren jarduerak saihesteko, baldin eta interes-gatazkaren bat eragin dezaketen jardueretan esku hartzen duen edozein subjektu obligaziodunek egiten baditu edo informazio pribilegiatua, esanguratsua edo bezeroekin edo bezeroekiko edo bezeroentzako transakzioekin loturarik badu erakundearen kontura egiten duen jardueraren bat dela eta.

Bereziki hau bermatzeko diseinatu behar dira neurri horiek:

- a) Subjektu obligaziodunek badakitela zer debeku dauden eragiketa pertsonalak egiteko eta eragiketa pertsonalak eta informazioaren hedapena direla-eta zer neurri dituen ezarriak erakundeak.

- b) Enpresari berehala jakinaraziko zaiola subjektu obligaziodunen batek egiten duen edozein eragiketa pertsonalen berri, bai eragiketaren berri emanez, bai erakundeari eragiketak identifikatzeko aukera ematen dioten beste prozedura batzuen bidez.

Funtzioak edo zerbitzuak eskuordetzeko akordiorik baldin badago, enpresak bermatu behar du jarduera eskuordetu dion erakundeak edozein subjektu obligaziodunek egiten dituen eragiketa pertsonalak erregistratzen dituela, eta informazio hori ahalik eta lasterren bidaltzen zaiola, eskatzen duenean.

- c) Erregistratzen direla enpresari jakinarazitako eragiketa pertsonalak edo hark identifikatutakoak, barne dela eragiketa haiei dagokien edozein baimen edo debeku.

Hauek dira aurreko paragrafoan xedatutakoa dela-eta debekatuta dauden jarduerak:

- a. Eragiketa pertsonal bat egitea, kasu hauetakoren batean:
- i. Eragiketa debekatua baldin badu pertsona horrek, Balore Merkatuaren 227. artikulua eta hura garatzeko xedapenak diotenaren arabera.
  - ii. Eragiketak informazio konfidentzialaren erabilera edo hedapen desegokia baldin badakar.
  - iii. Eragiketak erakundeko obligazioren batekiko gatazka sortzen badu edo sor badezake, Balore Merkatuaren Legeak eta hura garatzeko xedapenak diotenaren arabera.
- b. Beste pertsona bati aholku ematen edo laguntzen bazaio, bere lanaren edo, hala badagokio, bere zerbitzu-kontratuaren ohiko jardueratik aparte, finantza-tresnekin transakzio bat egin dezan, zeina, subjektu obligaziodunaren eragiketa pertsonal bat balitz, aurreko a) idatz-zatiak edo 217/2008 Errege Dekretuaren 47.2.a) edo 80.e) artikuluek diotenaren eremuan sartuko bailitzateke.
- c. Balore Merkatuaren Legearen 227.1 b) artikulua dioena gorabehera,
- i. Subjektu obligaziodunaren eragiketa pertsonal bat balitz aurreko a) idatz-zatiak xedatzen duenak edo 217/2008 Errege Dekretuaren 47.2 a) edo 80.e) artikuluek diotenak eragingo lioketen eragiketa bat egitea finantza-tresnen gainean.
  - ii. Beste pertsona bati aholku ematea edo laguntzea eragiketa hori egin dezan.

### 3. Eragiketa pertsonalak egiteko prozedura.

3.1. Bigarren puntuan aipatutako jarduerak eragozteko neurriak betearazteko, prozedura hau ezarri du LABORAL Kutxak, batez ere hau bermatzeko:

- a) Subjektu obligaziodunak jakinaren gainean daudela eragiketa pertsonalak egiteko dauden debekuez eta erakundeak eragiketa pertsonalak eta informazioa zabaltzea dela-eta ezarri dituen neurriez, aurreko zenbakian dioenari jarraikiz.
- b) LABORAL Kutxari berehala emango zaiola subjektu obligaziodunaren batek egiten duen edozein eragiketa pertsonalen berri, bai eragiketaren jakinarazpenaren bidez, bai erakundeari eragiketak identifikatzen laguntzen dioten beste prozedura batzuen bidez.

Funtzioak edo zerbitzuak eskuordetzeko akordiorik baldin badago, LABORAL Kutxak bermatu behar du jarduera eskuordetu duen erakundeak badaramala edozein subjektu obligaziodunek egiten dituen

eragiketa pertsonalen erregistroa, eta informazio hori LABORAL Kutxari ahalik eta lasterrena bidaliko zaiola, hala esaten zaionean.

- c) LABORAL Kutxari jakinarazitako edo hark identifikatutako eragiketa pertsonalen erregistro bat eramaten dela, barne direla eragiketa haiei dagokien zeinahi baimen edo debeku.

3.2. LABORAL Kutxaren bitartez egin behar dituzte eragiketa pertsonalak subjektu obligaziodunek, nahitaez. Betekizun horretatik salbuetsita daude zor publikoko baloreetan egiten diren inbertsioak.

Betetzat joko da eskakizun hori aginduak zuzenean ematen baditu subjektu obligaziodunak, inbertsio-zerbitzuetako enpresa baten edo LABORAL Kutxaren partaidetzako beste kreditu erakunderen baten bidez, betiere subjektu obligaziodunak inbertsio-zerbitzuetako enpresa edo partaidetzako kreditu-erakunde horren bidez ematen baditu agindu guztiak.

Subjektu obligaziodunak aldi berean subjektu obligaziodun baldin badira inbertsio-zerbitzuak emateko baimendutako beste finantza-erakunde batean, LABORAL Kutxaren bitartez egin ditzakete beren eragiketak, edo beste erakunde horietako bakar baten bitartez. Hurrengo zortzigarren atalean aipatzen den organoari jakinarazi behar zaio aukeraren berri, eta arrazoizko denbora-epe batez eutsi erabakiari.

Aurrekoa gorabehera eta zortzigarren atalean aipatzen den organoak aldeztatik onetsita, subjektu obligaziodunek LABORAL Kutxa ez den beste edozein finantza-erakunde baimenduren bitartez egin ditzakete eragiketa pertsonalak.

3.3. Hau da horretarako prozedura:

Idatziz edo LABORAL Kutxak horretarako daukan zeinahi bitarteko telematiko, informatiko edo elektronikoren bidez formalizatu behar dira eragiketa pertsonalei buruzko subjektu obligaziodunen aginduak, eta aginduak justifikatzeko dagokien fitxategian erregistratu behar dira.

Ez da eman behar inongo agindurik behar adinako funts-hornidurarik egin ez bada, dagozkion baloreen edo eskubideen titulartasuna edo haiek erosi izana egiaztatzen ez bada edo bezero arruntei normalean eskatzen zaizkien bermeak eskatu gabe.

Hurrengo zortzigarren puntuan aipatzen den organoak baimenik eman ezean, erositako baloreak edo finantza-tresnak ezin dira saldu erosketa-eragiketa egin den saio edo egun berean, ezta —oro har— egun berean kontrako posizioz adierazten duen eragiketarik egin ere.

Berriazko prozedurak ezarriko dira agian aldeztatik aurreko baimena behar duten balore-mota batzuen gainean eragiketak egiteko egoera jakin batzuetan.

3.4. Hamabost egun naturaleko epean elkarren aurkako eragiketa pertsonalak egiten badira balore edo finantza-tresna baten gainean, egiten diren egun berean eman behar zaio horren berri Erregelamendu honetako zortzigarren atalean aipatzen den organoari.

Aurreko paragrafoan aipatzen den eragiketen berri emateko betekizunaz aparte, beste hau ere badute subjektu obligaziodunek: hilaren lehen hamar egunak igaro aurretik, hurrengo zortzigarren atalean aipatzen den organoari eman behar diote aurreko hilean egindako eragiketa pertsonal guztien berri. LABORAL Kutxak lagundu dezake obligazio hori betetzen, garaiz prestatuz eta bidaliz dagozkion

zerrendak subjektu obligaziodunari, hark sinatu eta itzul ditzan, baldin eta ekitaldi horretan egindako eragiketa guztiak jasotzen badituzte.

Zortzigarren atalean aipatzen den organoak hala eskatuta, subjektu obligaziodunek noiznahi eman behar dute bere eragiketa pertsonalen berri, idatziz eta xehetasun osoz, hala eskatzen bazaie. Inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak edo partaidetzak xede dituzten eragiketa pertsonal guztiei aplikatu behar zaie informazioa emateko betekizun hori, baita eragiketa horiek merkatu antolatuetan negoziatzen ez badira ere, eta zorroak gestionatzeko kontratu bati dagozkienei.

Erregelamendu honetan aipatzen diren jakinarazpenen eta informazioen erabateko konfidentzialtasuna gordetzeko betekizuna dute haien hartzaile den organoko kideek.

3.5. LABORAL Kutxak zehaztu dezake, bere barne-prozeduretan, seigarren atal honetan aipatzen diren eskakizunen betearazpen-maila, datu hauen arabera: subjektu obligaziodunak bere kontura egiten dituen eragiketak, ala ahaidetasun-lotura edo harreman estua duen edozein pertsonaren kontura, edo subjektu obligaziodunarekin duen harremana dela-eta eragiketaren emaitzan zuzeneko edo zeharkako interes esanguratsua duen pertsona baten kontura. Halaber, zehaztu dezake zer harpidetu, erosi edo saldu nahi diren zer balore-motari aplikatu behar zaien LABORAL Kutxaren baimen-betekizuna eta, oro har, egokitu ditzake hartutako neurriak eragiketek eragiten dieten finantza-tresna motei eta kasu bakoitzeko era guztietako inguruabarrei.

#### 4. Eragiketa pertsonaletatik kanpo geratzen diren eragiketak

Aurreko 3. idatz-zatian aipatzen dena ez zaie aplikatu behar eragiketa hauei:

- a) Inbertsio-zorroen gestioa indibidualizatu eta eskatu ahalako inbertsio-zerbitzuetako eragiketa pertsonalei, baldin eta aurrez ez bada horri buruzko komunikaziorik egon zorroaren gestorearen eta subjektu obligaziodunaren edo beste pertsona baten artean, zeinaren kontura egiten baita eragiketa. Dena dela, zorroak gestionatzeko kontratu-sinaduraren berri eman egin behar da, eta kontrol-organoak beharrezko deritzon informazio guztia eska dezake.
- b) Inbertsio kolektiboko erakunde harmonizatuetakako edo bere aktiboen arteko arriskuaren banaketari EBko araudiaren baliokide den maila bat ezartzen dion EBko estatu baten legediaren arabera ikuskaritzapeko erakundeetako partaidetza edo akzioen gaineko eragiketa pertsonalei, betiere subjektu obligaziodunak edo beste edozein pertsonak, zeinaren kontura eragiketa egiten baita, ez badute parterik hartzen erakundearen gestioan, azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuak onetsitako Inbertsio Kolektibo Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduko 64.a) artikulua erakundeak egiten duen definizioari jarraikiz.

#### **ZAZPIGARRENA. Barneko jokabide-arauak inbertsio kolektiboko erakundeen eta pentsio-funtsen gordailuzain diren erakundeentzat.**

Caja Laboral Popular Coop. de Créditok inbertsio kolektiboko erakunde baten edo pentsio-funts baten erakunde gordailuzain gisara jarduten badu, eta haiek gestionatzen dituen sozietatea Caja Laboralen talde berean badago, saihestu egin behar du sozietate gestore horrekiko harremanetan sor daitekeen interes-gatazka oro.

Xede horietarako, behar diren neurriak hartuko dira gordailuzain den Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren eta erakunde gestorearen jarduerari buruzko informazioa beste erakundeko langileen eskura egon ez dadin.

Hori dela eta, LABORAL Kutxak fisikoki bereiz eduki behar ditu gordailuzain- eta gestio-jardueretarako jendea, baliabide materialak eta tresna informatikoak, bi jarduera horien arduradunen artean interes-gatazkarik eragin dezakeen inongo informazio-fluxurik sor ez dadin.

Zehazki, bereizte-arau hauek ezarriko dituela hitzematzen du LABORAL Kutxak:

- a) Ez da egongo kontseilari edo administratzaile komunik.
- b) Sozietatearekin loturarik ez duen eta gordailuzainarekiko independentea den jendeak zuzenduko du sozietate gestorea.
- c) Erakunde gestorearekiko independentea den jendeak zuzenduko du sozietate gordailuzaina.
- d) Fisikoki bereizita egongo dira gordailuzainaren eta sozietate gestorearen egoitza soziala eta jarduera-zentroak.

Erakunde gestore eta gordailuzainek hirugarren erakunde batzuen esku utzi badituzte beren funtzioak, aipatutako bereizte-neurriak bete egin behar dira.

Subjektu obligaziodunentzako Erregelamendu honetako arau guztiak aplikatu behar zaizkie, hala badagokie, inbertsio kolektiboko erakundeen edo pentsio-planen eta -funtzen jarduera-eremuan egiten diren eragiketei.

#### **ZORTZIGARRENA. Betearazpen-organoa.**

1. Caja Laboral Popularren Araudia Betearazteko Departamentuari dagozkio Erregelamendu hau kontrolatu, betearazi eta gauzatzeko funtzioak.
2. Departamentu horri dagokio aurreko ataletan aipatutako komunikazioak jasotzea eta aztertzea eta, oro har, Erregelamendu hau betearaztea. Bereziki, funtzio hauek ditu:
  - Une oro jakinaraztea subjektu obligaziodunei BJEa betetzeko prozedurei eta neurriei buruzko informazioa.
  - Egoki deritzen neurriak proposatzea informazioen artean hesiak ezartzeko eta informazio-fluxuak kontrolatzeko eta, oro har, LABORAL Kutxan Erregelamendu hau eta bere printzipioak behar bezala betearazteko, horretarako behar diren prozedura eta arau osagarriak aginduz.
  - Etengabe eguneratuta eta balore-merkatuak ikuskatzen dituzten agintaritzen eskura edukitzea Erregelamendu hau bete behar duten subjektu obligaziodunen zerrenda ulergarri bat.
  - Interes-gatazkaren bat sortu den edo, martxan dauden zerbitzuak badira, sor daitezkeen erakundeak edo haren kontura diharduenak egindako inbertsio-zerbitzu moten eta haien osagarrien erregistro bat edukitzea eta erregularri eguneratzea.

- Egokiro eguneratuta edukitzea sail berezi bakoitzean lan egiten duten enplegatuen zerrenda.
- Erregelamendu honetan aurreikusten diren jakinarazpenak eta informazioak jasotzea subjektu obligaziodunengandik, txukun artxibatzea eta egokiro gordetzea.
- Informazio pribilegiatuak eragiten dien baloreen erregistro konfidentzial bat egitea. Hala badagokio, zerrenda horretan sartu behar dira proiektuan edo martxan dauden eragiketei dagozkien baloreak, baldin eta inbertsio-bankaren jarduera tartean bada. Arduradunek aipatutako organoari eman behar diote erregistroa behar bezala gestionatzeko behar den informazioa.
- Daukan garrantzi berezia dela-eta informazio pribilegiatua izan dezakeen proiektu edo eragiketa batean diharduten LABORAL Kutxako edozein sail edo sektoretatik jasotako inizatuen zerrenden erregistroa egitea.
- Hainbatean behin begiratzea, laginketa-tekniken bidez, LABORAL Kutxak bere kontura edo bezeroen zein subjektu obligaziodunen kontura merkatuan egindako eragiketei informazio erreserbatu edo pribilegiatuak bidegabeki eskuratzeko eragiten dien, informazio-hesien sistemak behar bezala funtzionatzen duen eta Erregelamendu honen arabera salbuetsitako eragiketak subjektu obligaziodunaren inolako esku-hartzerik gabe egiten diren.
- Erregelamendu honetan aurreikusitako baimenak ematea, hala badagokio, eta emandako baimenen erregistroa egokia egitea.
- Kontseilu Errektoreari edo hark izendatzen duen organoari jakinaraztea Erregelamendu honen betearazpenarekin lotura duten gorabehera esanguratsu guztiak. Kasu guztietan, urtean behin, gutxienez, Erregelamendu honetan aurreikusitakoaren betearazpenaren berri ematea, oro har.

#### **BEDERATZIGARRENA. Ez-betetzea.**

Erregelamendu honetan aurreikusitakoa ez betetzeak —Balore Merkatuaren Legean eta aplikatzekoa den gainerako araudian aurreikusitakoaren garapenari dagokionez (balore-merkatua antolatzeko arauak eta diziplina, adibidez)— dagozkion zehapen administratiboak ekar ditzake, laneko legediak edo beste edozein arlotakoak diosenaren arabera aplikatzekoa dena alde batera utzi gabe.

#### **HAMARGARRENA. Arau osagarriak eta eranskinak.**

1. LABORAL Kutxak Erregelamendu honen osagarri diren barne arau-jokabide osagarriak baldin badauka balore-merkatuaren alorrean, haien berri eman behar du, eranskin gisara atxiki Erregelamendu honi, eta haren berezko parte bihurtu.
2. Hala badagokio, Erregelamendu honetara bildu behar da sozietate balore-jaulkitzaile izaerari dagokion eranskina.



## **HAMAIKAGARRENA. Bidalketa eta eguneratzeko konpromisoa**

Balore Merkatuaren Legearen 225.2 artikulua dioenari jarraikiz, Erregelamendu honen eguneratzea bermatzeko idatzizko konpromiso bat bidali behar dio LABORAL Kutxak CNMVri, eta haren edukia ezagutu, ulertu eta onartu egin behar dute konpromisoa aplikatu behar zaion erakundeko pertsona guztiek.